

EK-ko



estatu eta gobernuburuuen gailurra

Krisi ekonomikoak auzitan jarri du Europako babes sozialerako politika

Majorrek lege «zorrotzei» eraso egiteko aprobetxatu zuen Delorsen diskurtso ezkorra

Europako Komunitateak babes sozialarekin segitzeko asmoa dauka krisi ekonomikoan eragina duela onartu arren. EK-ko estatu eta gobernuburuuen gailurrean (Europako Kontseilua) krisi ekonomikoan zentratuta jardun zuten atzo Kopenhagen, eta Erresuma Batuak gogor kritikatu zituen EKren babes sozialerako neurriak.

KOPENHAGE

Krisi garaian gertatu ohi den moduan, elkartasuneko neurrien aurka Pandoraren kutxa zabaldua geratu zen atzo Kopenhagen, eta John Major lehen ministro britainiarrek ireki zuen. Aurretik, Europako Komunitateak konpetitibitatea galtzearen zergatiak esplikatu zituen Jacques Delors Europako Batzordeko lehendakariak.

Delorsek EEBB eta Japonia-
rekiko enplegu galeraren egiturazko ahultasunak azaldu zituen. Langabezia masiboari buruz, 1970etik 1990era bitartera EEBBek 28,8 milioi eta Japoniak 11,7 milioi lanpostu berri sortu zituzten, eta EK-k, berriz, zortzi milioi baino ez. «Oso larria da, 1991n EKn 25 urtez behetiko bost langabeetatik bat duela bi urtetik enplegu baten zain egotea eta langabetuen % 45 duela urtebetetik enplegurik gabe egotea» azaldu zuen Delorsek. Gainera, EKn 100 pertsona aktiboko 124 inaktibo dauden bitartean, EEBBetan inaktiboak 98 dira eta Japonian 89.

Langabeziarekin batera, konpetitibitatea gutxitu egin da EKn duela bi urtetik hona. 1980etik hona EK-k nazioarteko merkaturaren % 3,7 galdu du, EEBBek eta Japoniak, berriz, % 2,2 eta % 0,5 irabazi dituzte.

Nazioarteko lanaren banaketak EKri egin dio kalterik handiena Delorsen arabera. Lanaren zatiketak zuzen-zuzenean erasotzen dio EKri. «Honek barne elkartasuna, hau da, langabeziaren aurkako borroka, kanpo elkartasunarekin, herri txiroen garapenerako laguntzekin bateratzea zail egiten du».

Garapen teknikoak EKn langabezia ekarri du epe laburreko ondorio gisa, hazkunde ekonomikoa beharrezkoa da enplegua sortzeko baina EKn ez da nahikoa, Delorsen arabera. Enplegua sortzeko lehendabiziko neurrie-



EK-ko estatuburu edo gobernuburuak, Delors, Klepsch eta Danimarkako Margarita erreginarekin.

EFE

tako bat enplegu bulegoen eraginkortasuna handitzea da Europako Batzordeko lehendakariaren arabera, «frogatu baita EKren langabezia tasaren azpian dauden estatuek -Alemania eta Suedia- pertsonal gehiago dutela langabetuei laguntza emateko».

Delorsen analisisiaz baliatuz, John Majorrek Europako legea-


ren «zorrotasuna» kritikatu zuen, EK-k dituen «gaixotasunak eragin dituen zorrotasuna», hain zuzen. Buruzagi kontserbadorearen arabera, benetako arriskua babes sozialak ekar lezake, honek «guri konpetentzia egiten diguten herrietara bidal bailitzake inbertsioak». Erresuma Batua da aurtun hazkunde ekonomiko po-

sitiboa izango duen Europako estatu bakarra, eta aldi berean, Europako Gutun Soziala sinatu ez duen bakarra. Iturri komunitarioen arabera, ordea, ez da Major babes soziala kentzea exigitzen duen bakarra. Ruud Lubbers lehen ministro holandarra ere langabe tasa handiari aurre egiteko neurri neoliberalen berrezarpena exigitzen duten horietako bat da.

Baina ez dirudi EK-k bere politika soziala aldatzeko asmoa duenik, Delorsek eta Europako Kontseiluko lehendakariak (Danimarka) argi utzi zuten. Denen den, ez dira gai izan langabezia eta krisiari aurre egiteko neurri zehatzak proposatzeko. Horren ordez, Delorsek aztertutako dituen puntu eta proposamen batzuen zerrenda aurkeztu zuen.

BOSNIAKO GERRA AZTERGAI

Krisi ekonomikoaz gain, atzoko gai zerrendan Europako segurtasuna eta Jugoslavia ohiko gerra zituzten aztergai Europako Kontseiluan. Hauek iluntzeko afariaren ostean aztertu behar zituzten estatu eta gobernuburu europarrek.



Klepsch.

EK-ko erakundeek elkartasun falta salatatu du Egon Klepschek

KOPENHAGE

Egon Klepsch Europako Parlamentuko lehendakariak gaitzeko erakunde komunitarioek Maastrichteko Hitzarmenak biltzen dituen puntu zenbait indarrean jartzeko duten elkartasun falta salatu zuen atzo, Kopenhageko gailurreko sarrera hitzaldian.

«Herritarrenganako hurbiltasunaz, gardentasunaz, kontrol demokratikoaz eta elkarlanaz Maastrichteko hitzarmenean onartu ziren proposamenei» erantzun garbirik eman ez zaiela adierazi zuen Klepschek. «Deitoragarria da guztiz zuek, estatu eta gobernuetako buruek, onartu dituzten gaiak gorpuzteko Europako Batzordeak erakutsi duen eraginkortasun falta», kritikatu zuen Europako Parlamentuko lehendakariak. Europako Kontseilua, Parlamentua eta Batzordea negoziaketetan aritu diren 6 hilabeteek emaitzarik batere ez dutela eman ere azaldu zuen hitzaldian.

Guzti honen artetik Europako Herri Defendatzailea izendatzeko erabakia ezin onartu izana azpimarratu zuen Klepschek. Honen arabera, «Europako instituzioetatik dokumentazioa jasotzeko moduez» Batzordeak eta Kontseiluak izan dituzten ezberdintasunek eragotzi dute akordioa.

Klepschek aurrikuspen ekonomiko txarrak ere azpimarratu zituen sarrera hitzaldian, eta Europarlamentuak Kopenhageko gailurrari begira krisitik irteteko egindako proposamenak ekarri zituen gogora.

PUNTUZ PUNTU

Delorsen proposamenak

Jacques Delors Europako Batzordeko lehendakariak Europaren konpetitibitate falta gaitzeko zortzi puntuko proposamena egin zuen atzo:

- **BATASUN EKONOMIKO** eta diru batasunaren bideari eutsi behar zaio, barne merkaturak sendotu eta konpetentzia leial eta emankorra eragiten duela.
- **INFORMAZIOA:** Informazio enpresak bultzatzeko bideak ireki behar dira, etorkizuneko ekonomiaren oinarri izango baitira.
- **HEZKUNTZA:** Hezkuntza sistemen aldaketa sakona. Bizitza osoan ikasi behar da eta jakintza, egiten jakitearekin konbinatu.
- **GARAPEN EREDU BERRIA:** Produktibitatean hobekuntzak egiteko orduan bizi kalitatea hobetzea hartuko da kontuan.
- **LAN MERKATUA:** Politika aktiboagoa behar da. Aldaketa teknologiko edo ekonomikoak aurrikusi eta tratatu behar dira.
- **EK-K IREKIA** eta elkartasuneko izan behar du beste herriekiko.
- **I+G:** Ikerketa eta Garapenean elkarlana areagotu behar da. Barne Produktu Gordinarenean % 3 erabiliko da horretarako gaur egungo % 2ren ordez.
- **AZPIEGITURAK:** Garraio eta telekomunikazioen azpiegiturak indartu behar dira, kohesio ekonomiko eta sozialean lagunduko baitu, eta azpiegiturretako industria indartu.



UDA IKASTAROAK

Matrikula zabalik
EGA eta ALFABETATZEA

Tf.: 42 49 10 Konstituzio Plaza, 5
D O N O S T I A